

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

*Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu datorren asterako: kontzertuak, dantza, zinema, tailerrak, erakusketak eta bisitak*

Astelehena, 2018.eko urriak 29

Nafarroa musika festa izango da datorren astean. [Hasteko](#), Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloa ospatzen delako. Ospe handia duten Asia, Amerika eta Europako 14 talde abestuko dute Erkidegoko 21 herrietan. Era berean, asteazkenean, "Urria Artximusikala" zikloaren eskutik piano kontzertu bat egongo da ikusgai Errege Artxibo Nagusian. Halaber, "Organo Musika Nafarroan" jaialdiak "Acción Aetra" taldearen emanaldia antolatu du larunbaterako eta San Nicolás elizan. Bukatzeko, larunbatean ere bai, Baluarte Aretoak "Operako koru handiak" kontzertua eskainiko du Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren eta AGAO abesbatzaren eskutik.



Nafarroako Museoaren kaperan Dora Salazarren eskultura.

Zinemari dagokionez Nafarroako Filmotekak bi ikuskizun eskainiko ditu: "Niñato" eta "Cadenas rotas" filmak astearte eta asteazkenean hurrenez hurren eta iluntzeko zortzietan.

Hitzaldi eta ikastaroen alorrean, Nafarroakoa Liburutegiak bi konferentzia prestatu ditu: "¿Zergatik luzatu iraganean? María Zambranorekin eta Simone Weilekin elkarrizketan" astelehenean eta Rosa Riuesen eskutik eta "Galerak eta doluak: testigantza idatziak" Ernesto Mauriren gidaritzapean eta asteartean. Halaber, asteazkenean bezala, haurrentzako "Ongi etorri ipuinetara" ikastaroaren beste emanaldi bat ospatuko da. Bere aldetik, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Think Tank laborategiaren bostgarren saioa hartuko du, "Kulturari aplikatutako teknologia berriak".

Antzerkiari dagokionez, Salestarren antzerki taldeak "Bernarda Albaren etxea"-ren irakurketa dramatizatua eskainiko du asteartean eta Nafarroako Liburutegian.

Erakusketen alorrean, Nafarroako Liburutegiak Pablo Antoñana eta María del Villar Berruezo artista nafarrak omentzen ditu bi erakusketa berrietan. Berruezoren erakusketaren kasuan, bisita bat antolatu da larunbatean aditu baten azalpenekin eskaintza ezagutzeko.

Bestalde, Nafarroako Museoko Kaperan beste sortzaile nafar baten lana egongo da ikusgai, Dora Salazar. Berritasunetik haratago, honako erakusketak dira zabalik: "Macla, mamua, bismuto, vicario" Oteiza Museoan; "Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)" eta "Baxenabarre, lurralde berezia" Nafarroako Errege Artxibo Nagusian; "Arkitektura eta Arkitektoak: Arraiza-Esparza-Gaztelu, 50 urte geroago" Nafarroako Parlamentuan; eta "Gazte Artea Garazi" bilduma Huarte Zentroan.

Huarte Zentroarekin jarraituz, "Periferia Birpentsatu Etxabakoitzen" proiektua eta "Sol y sombra" proposamenak zabalik jarraitzen dute. Halaber, aste honetan "Estudio irekiak" egongo dira Zentroko sortzaileen jarduna ezagutzeko. Asteazkenean bukatuko da eskaintza DJ baten laguntzarekin eta mokadu batekin. Berritasunak badadue ere bai, "Sorginak" egoitza eta "Work in Process" topaketa.

Bukatzeko, eta astero bezala, bisita berriak antolatu dira Nafarroako Karlismoaren Museoa ezagutzeko (ostegun eta larunbatean) eta Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren konpontze lanak bisitzeko (igandean).

Kultura egitarauaren xehetasun guztiak [esteka honetan](#).

NAFARROAKO NAZIOARTEKO ABESBATZA ZIKLOA  
CICLO CORAL INTERNACIONAL DE NAVARRA

26 KONZERTU CONCIERTOS  
16 ABESBATZA CORALES

AGUIAROTZ  
ARAGONIA  
ARTZANTZINA  
AZOIKO  
BENJUTAN  
BERRITZANO  
BETELLAZARRA  
EIZABEN ARRIKATZ  
HUARTEZARRA  
MARTOIN  
URBESKOTZ  
SARICOLA  
MUTRIKALDEA  
OLITEARRA  
HERRIOARRA  
PUEBLO LAZARRA  
SARRA

URRIAK 28tik AZARDAK 4ra 2016  
28 de OCTUBRE al 4 de NOVIEMBRE 2016

GOBERNUA | GOBIERNO  
Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

EITE  
EITE  
EITE

URRIAREN 28tik AZARAREN 4ra ospatzen ari den Nafarroako Nazioarteko Abesbatzen zikloaren kartela.